Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko uztailaren 16a, osteguna — 134 — Jueves, a 16 de julio de 2020



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

*«Gipuzkoan, enpresetan pertsonen partaidetza sustatzeko programa»ko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2020ko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2020ko uztailaren 7an:

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak, Gipuzkoako Foru Aldundiko 2020-2023 aldirako Plan Estrategikoarekin bat (non Gipuzkoako garapenerako eredu ekonomiko eta sozial baten alde egiten den), egoerari aurrea hartuz eta proposatzaile eta sustatzaile papera betez, lurralde bat –Gipuzkoa– sustatzen lagundu behar du, politika ekonomiko eta sozialak diseinatuz eta aplikatuz, pertsonen eta gizarte kohesioan oinarrituta. Eta horretarako, lankidetzako gobernantza ereduen bidez, eragile mota desberdinak ahaldunko ditu (pertsonak, enpresak, antolamendu sozio-ekonomikoak eta prestakuntzakoak, eskualdeak eta lurralde bera), jasangarritasun hirukoitza lortzeko ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari dagokienez, non pertsonak eta enpresak eragile nagusiak diren, konpromisoa eta balio sozial partekatuaren ekarpenaren bidez.

Hori dela eta, politikak sustatuko dira, enpresa eraldatzaileen eredu berriak lortzeko (antolaketa eta Kudeaketa aurreratuko ereduak, langileen parte-hartzean oinarrituta eta kalitatezko enpleguaren aldeko testuinguruak bultzatuta; langile bakoitzaren ekarpena aintzat hartzea eta antolakundearen gaitasunen araberako ordainsariak ezartzea; dimentsio enpresarial eraginkorrak bilatzea; balio erantsia ematea, sektoreen esplorazioa, ustiapena eta hibridazioa integratzen duena), lurraldearekin konprometituta eta garapen jasangarriaren helburuekin (GJH) lerrokatuta, beren gaitasunetik abiatuta erronka ekonomiko eta sozial berriei erantzungo dietenak.

Enpresa eta enplegu gehiago eta hobeak sortzera bideratutako estrategia bat garatu nahi da, ekonomia produktiboaren alde eginda, batik bat, gure sektore estrategikoetan, aberastasuna era jasangarrian sortzea sustatzen duten enpresa eta gizarte portaerak indartuta.

Ildo horri jarraikiz, lurraldeak aurrera egiteko eredu bat sustatuko da, enpresen lehiakortasuna hobetzen duten eta lurraldearen gizarte eta ekonomia baldintzak hobetzeko lagungarri diren politika eta praktika operatiboetan oinarritua. Hala, ekonomia, gizarte eta ingurumenaren garapena elkarrekin erlazionatuta dauden elementutzat jotzen dira, Gipuzkoako herritarren etorkizuneko ongizatean eragina baitute. Kontua da antolakuntza-era batzuk miatzea eta sendotzea, enpresaren eta antolakundeen eremuan parte hartzea aldeztuko dutenak. Ildo horretan eta puntu horretan da, dudarik gabe jarraitu eta kontsolidatu behar den zerbait, hurbilketak eta esperientziak birsendotzea politika publikoak formulatzeko eta praktikan jartzeko prozesuetan.

Pertsonek enpresetan parte hartzeko politika aurrera eramateak, eta pertsonek enpresaren proiektuan (Kudeaketa, erabakia, emaitzak eta kapitala) parte hartze modu desberdinen

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL

*Bases reguladoras y convocatoria de 2020 de las subvenciones del programa para la «Promoción de la participación de las personas en las empresas en Gipuzkoa».*

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 7 de julio de 2020:

El Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, en coherencia con el Plan Estratégico de la Diputación Foral 2020-2023 donde se apuesta por un modelo de desarrollo económico y social de Gipuzkoa, desde su rol de anticipación, proponente e impulsor, debe contribuir desde el diseño y aplicación de políticas económicas y sociales a promover un territorio –Gipuzkoa– basado en el bienestar de las personas y la cohesión social; y para ello, a través de modelos de gobernanza colaborativa va a empoderar al conjunto de agentes (personas, empresas, organizaciones socio-económicas y formativas, comarcas y el propio territorio), orientándolas al logro de una triple sostenibilidad: económica, social y medioambiental. Y, donde las personas y las empresas, con su aportación –compromiso y valor social compartido– son unos agentes nucleares.

Por ello se van a promover políticas que contribuyan al logro de nuevos modelos de empresas transformadoras (modelos de organización y gestión avanzados basados en la participación de las personas y los contextos favorables al empleo de calidad, integración de la contribución personal y la retribución organizacional, búsqueda de dimensiones empresariales eficaces, aportación de valor diferencial, que integren la exploración y la explotación, la hibridación sectorial) comprometidas con el territorio y alineadas con los Objetivos de Desarrollo Sostenibles (ODS); y, que desde sus capacidades respondan a los nuevos retos económicos y sociales.

Se pretende desarrollar una estrategia orientada a generar más y mejores empresas y empleos, apostando por la economía productiva, especialmente en nuestros sectores estratégicos, promoviendo comportamientos empresariales y sociales que fortalezcan la generación sostenible de riqueza.

En este sentido, se promoverá un modelo de progreso territorial basado en políticas y prácticas operativas que mejoren la competitividad de las empresas así como contribuyan a la mejora de las condiciones sociales y económicas del propio territorio. Entendiendo el desarrollo económico, social y medioambiental como elementos interrelacionados que tienen su impacto en el bienestar futuro de la ciudadanía guipuzcoana. Se trata de explorar y potenciar formas de organización social que favorezcan la participación en el ámbito de la empresa y las organizaciones. En ese sentido, y es en este punto, donde el reforzamiento de las aproximaciones y experiencias en los procesos de formulación y puesta en práctica de políticas públicas, es algo sin duda a seguir y consolidar.

La política de participación de las personas en las empresas, la continuidad y el enraizamiento a través de diferentes formas de participación de las personas en el proyecto de em-

EK\CV GAO-I-2020-03353

bidez jarraitutasuna eta errotzea lortzeak beharrezkoa dute, besteak beste –helburua izanda gizarte berri zuzenago eta kohesionatuago bat sortzea–, ekonomia lehiakorrago eta jasangarriago bat, oinarritzat dituena enpresen antolakuntza-eredu batzuk, non enpresak parte hartzaileagoak diren (konfidantza oinarritzat dituena) eta lurraldearekiko lotura handiagoa eta hobea duten.

Enpresaren aldeko apustu horrek, besteak beste, balioa aitortzen dio egiten duen ekarpen sozial eta ekonomikoari, eta, hala, partaidetza bultzatzen duten ahalik eta enpresa gehien izatearen aldeko apustua egiten da, enpresa horietan lehiakortasunaren elementu bereizgarri baitira errenta-banaketa egokia, proiektu partekatu eta jasangarrien konfigurazioa, kalitatezko enplegua, ardura pertsona guztien artean banatzea, eta ingurunearekiko konpromisoa.

Beraz, enpresari ikuspegi berri bat eman behar zaio, sozialki esanguratsua den errealitate gisa.

Zentzu horretan, eta Garapen Jasangarrirako Helburuek enpresa guztiei egindako proposamen esplizituarekin bat etorriz, beren sormena eta berrikuntza aplika ditzaten garapen jasangarriaren erronkei aurre egiteko. Ulertzen da funtsezkoa dela iraunkortasuna jarduera nagusiaren eta enpresen gobernantzaren barruan txertatzea, baita garapen jasangarrirako helburuak sartzea ere enpresaren funtzio guztietan. Horrek esan nahi du, helburu partekatuak lortzeko edo erronka sistemikoei aurre egiteko, enpresak gero eta gehiago inplikatzea balio-katearen bidezko aliantzekin, beren sektorearen barruan edo administrazio publikoarekin eta gizarte zibileko erakundeekin.

Eta enpleguaren kalitatea –kontzeptu pluridimentsionalean– GJH horien oinarrietako bat da (gizarte-kohesioa sustatzen baitu), eta pertsonen parte-hartzean (pertsonen ahalduntzea) eta balio sozial partekatuan (enpresa- eta gizarte-helburuak integratuz) oinarritutako erakundeak sustatu beharreko enpresa-ereduaren ezaugarri izan daitezke eta izan behar dute.

Eredu honetan, alderdi interesdunek parte hartzen duten erakundetzat hartzen da enpresa, eta bertan alderdi guztiek bilatzen dituzte negozio perspektiba iraunkorra, lehiakortasun ekonomikoa eta gizarte oreka, eta, beraz, horren arabera jokatzen dute. Enpresa horrek ahalik eta balio gehien sortu nahi du gizartearentzat ahal den baliabide gutxien erabilita, balioa ulertuta denboran zehar aldatuz doazen beharrei aurre egiteko gaitasun gisa.

Horrek denak berekin dakar, azken batean, bai beharraren ikuspuntutik bai apustu horrek adierazten duen aukeraren ikuspuntutik begiratuta, bultzatzen diren antolakundeak pertsonetan oinarrituta egotea, eta lurraldean errotuta, berma ditzaten haien jarraitutasuna eta jasangarritasuna; berekin dakar, orobat, garatu behar diren dinamikek pertsonak eta lurraldea gaitzea, eta garapen eredu hori aldezten dutenak eta koherenteak izatea. Halaber, lagunduko zaie, langileek enpresan parte hartzearen bidez jarraitutasun eta errotze helburuak lortu nahi dituzten dinamika eta erabaki guztiei.

Enpresak, erakunde gisa, garapen pertsonala zeregin kooperatibo bilakatzen du, era dinamikoago eta eraginkorragoan, eta horren funtsa da, hain zuzen, elkarrenganako konfiantza. Bestalde, ikaskuntza ere sustatzen da, funtsezko faktorea baita hazkunde ekonomikoan eta baliabideak sortzeko ahalmenean. Azken buruan, komunitate bat da, komunitate horretako kide guztien mesedetan jarduten dena, eta kide guztien hazkuntza pertsonalaz arduratzen dena.

Erakunde eta enpresa garapen eredu jakin baten aldeko apustua egiten dute. Eredu horren oinarria da langileei enpresa proiektuan parte hartzeko bideak irekitzea. Beraz, proiektuan aktiboki esku hartzen duten pertsonek osatzen duten enpresak dira.

presa (gestión, decisión, resultados y capital), con el objetivo de crear una nueva sociedad más justa y cohesionada, precisa, entre otras cosas, de una economía más competitiva y sostenible; fundamentada en modelos de organización de las empresas más participativas (basadas en la confianza) y con una mayor y mejor vinculación con el territorio.

Esta apuesta por la empresa, supone, entre otras cosas, poner en valor su contribución social y económica, apostando por disponer del mayor número posible de empresas participativas, en las que la adecuada distribución de las rentas, la configuración de proyectos compartidos y sostenibles, el empleo de calidad, la corresponsabilización de todas sus personas y el compromiso con el entorno, sean elementos de diferenciación competitiva.

Se trata, pues, de entender la empresa como una realidad socialmente relevante.

En este sentido, y acorde con la propuesta explícita hecha por los ODS a todas las empresas para que apliquen su creatividad e innovación para resolver los retos del desarrollo sostenible, se entiende que es clave integrar la sostenibilidad dentro de la actividad principal y la gobernanza de las empresas, así como la incorporación de metas de desarrollo sostenible en todas las funciones de la empresa. Lo que supone, para lograr alcanzar objetivos compartidos o para hacer frente a retos sistémicos, que las empresas se involucren cada vez más con alianzas a través de la cadena de valor, dentro de su sector o con la Administración Pública y organizaciones de la sociedad civil.

Y, donde la calidad del empleo –en su concepto pluridimensional– (fomenta la cohesión social), es una de las bases de esos ODS, y, donde organizaciones basadas en la participación de las personas (empoderamiento de las personas) y el valor social compartido (integrando objetivos empresariales y sociales) pueden, y debe ser, características del modelo empresarial a promover.

Un modelo donde se concibe a la empresa como una institución en la que colaboran las distintas partes interesadas y en la que todas las partes buscan conjuntamente una perspectiva de negocio duradera, una competitividad económica y un equilibrio social, y actúan en consecuencia. Una empresa que pretende generar el máximo valor para la sociedad con la menor cantidad de recursos, entendiendo valor como la capacidad para cubrir las necesidades, cambiantes a lo largo del tiempo.

Todo ello supone, en definitiva, tanto desde un punto de necesidad y como de la oportunidad que representa esa apuesta, impulsar organizaciones basadas en las personas y enraizadas en el territorio que garantizen la continuidad y sostenibilidad de las mismas y; desarrollar dinámicas que capaciten a las personas y al territorio favorecedoras y coherentes del citado modelo de desarrollo. Asimismo, se apoyarán todas aquellas dinámicas y decisiones que persigan los objetivos de continuidad y enraizamiento, a través de la participación de las trabajadoras y los trabajadores en la empresa.

Se asume que la empresa es la institución que –de una manera más dinámica y eficaz– convierte el desarrollo personal en una tarea cooperativa, cuyo fundamento no es otro que la confianza mutua; y, donde se potencia el aprendizaje como un factor esencial en el crecimiento económico y en la capacidad de generación de recursos. En definitiva, una comunidad que busca el bien de todas las personas que la conforman, que se siente responsable del crecimiento personal de todas las personas que la integran.

Organizaciones y empresas que apuestan por un modelo de desarrollo basado en: tener articuladas diversas formas de participación de sus trabajadoras y trabajadores en el proyecto empresarial. Se trata de empresas que están integradas por personas implicadas activamente en el proyecto empresarial.

EK\CV GAO-I-2020-03353

Langileen partaidetzak, konpromisotik eta erantzunkidetasunetik, esan nahi du aukerak ematea hainbat erabakitan parte har dezaten, hainbat alderdi hartuta: berehalako lan zereginetik hasita enpresaren lan antolakuntzari buruzko kontu zabalagoetaraino edo erabaki estrategikoagoetaraino, hala nola inbertsioa, estrategia eta abar.

Enpresetan pertsonak sustatzeko estrategia batek kontuan hartu beharko luke enpresaren osotasuneko partaidetza integrala, barne hartuta Kudeaketan, erabaki estrategikoetan, emaitzetan eta kapitalean parte hartzea; baita ere, elkarrekin erlazionatutako modu batean lan egin behar dela hasieratik, eta barruan sartu behar direla tarteko diren pertsona guztiak eta enpresaren garapenean eragina dutenak (langileak, zuzendaritza-taldeak, akziodunak...), eta txertatu behar duela langileak antolakunde/enpresa gisako ikuskera. Azken batean, balioaren elkarrekiko ekarpena: pertsona eta enpresa.

Askotarikoak dira enpresen motibazioak beren enpresetan pertsonen partaidetza sustatzeko estrategiak txertatu edo garatu ditzaten, eta intentsitate desberdinetakoak dira, zer-nolako tipologiaren eta zabaltasunaren gainean lan egiten den, horren arabera: abiapuntuko partaidetza-konbikzioa edo filosofia, partaidetza-ereduak, talentua atxikitzen lagundu beharra, inplikazio handiagoa sortzen laguntzea, pertenentzia-zentzua, jabetzaren belaunaldi aldaketa erraztea edo enpresa-jardueraren jarraitutasuna bermatzea.

Pertsonen partaidetzak eragin onuragarriak ditu hainbat arlotan, hala nola laneko ikasketa-aukeren garapenean, pertsonen motibazioan bertan, lan eta enplegu baldintzen hobekuntzan, eta pertsonen ongizatean. Eragin horiek beste faktore batzuek hobetu ditzakete. Horietako batzuk barnekoak dira, edo enpresarenak berarenak, eta beste batzuk, berriz, kanpokoak, edo testuingurukoak; zehazki: lan zereginaren ezaugarriak, pertsonen antolaketa-gaitasunaren malgutasun politiken izaera, kontsulta- eta ordezkaritza-erakundeen eskuragarritasuna, jabetza-mota, enplegu erregulazioaren izaera, negoziazio kolektiboa, gizarte solaskideen arteko interakzioa, eta negoziazio kultura, tokiko gobernuen laguntza, eta fiskalitatea. Ildo horretan, lerrokatu egin behar dira testuinguru politikak eta jarduketak enpresa-eremuan.

Pertsonek enpresetan parte hartzeak onurak sortzen ditu bai langileen mailan bai enpresa eta lurralde mailan. Eragile garrantzitsu bat da, bere eragina duena bai langileen ongizatean bai haien autogarapeneko eta lan gogobetetasuneko aukeren hobekuntzan. Eragile bat da lan egiten duten enpresen eraginkortasunean eta arrakastan; oinarrizko osagai bat da lantokiko berrikuntzan, zeinari esker enpresek ahalik eta etekinik handiena ateratzen baitiete pertsonen gaitasunei eta enpresako ekoizpen prozesuez eta zerbitzuez duten ezagutzari. Eta kohesio, aberastasun, demokrazia eta lotura eragile bat da lurraldearekiko.

Testuinguru horretan, enpresa bakoitzak bere ibilbidea definitu eta garatu behar du partaidetzaren alde, alderdi hauek indartzeko: pertsonen erabaki gaitasuna, enpresen lehiakortasuna, errotzea, eta gizarte nahiz lurralde kohesioa.

Azkenik, jakinda enpresa bakar bat ere ez dela bere burua aski duen erakunde bat, eta enpresa guztien lorpenetan zerikusia izan duela inguruan duen laguntza-ekosistemak, enpresa gertakari sozialtzat jotzen da; ez du kokatuta dagoen komunitatetik aldenduta jarduten; bere inguruaren beharra du, eta horri etekina ateratzen dio. Izan ere, gure indarra inguruan dago, gertutasunean eta erlazionatzeko gure gaitasunean.

Enpresen proiektuetan pertsonak erdigune izatea bultzatu nahi da, Gipuzkoa parte-hartzaileago eta konprometituago bat lortzeko.

Foru Aldundiak, jakitun izanik zer-nolako garrantzia duen enpresetan eredu parte-hartzaileak edukitzeak, estrategia bat de-

La participación de las trabajadoras y trabajadores, desde el compromiso y la corresponsabilidad, se refiere a las oportunidades para que participen en las decisiones que abarcan desde la tarea de trabajo inmediata, a cuestiones más amplias de la empresa sobre la organización del trabajo o decisiones más estratégicas como la inversión, estrategia, etc.

Una estrategia de promoción de las personas en las empresas debiera contemplar la participación integral en el conjunto de la empresa, que incluya la participación en la gestión, en las decisiones estratégicas, en los resultados y en el capital, que se tiene que trabajar de manera interrelacionada desde un primer inicio y que incorpore a todas las personas implicadas y con influencia en el desarrollo de la empresa (trabajadoras y trabajadores, equipos directivos, accionistas ...) y debe integrar la visión de las personas trabajadoras como la organización/empresa. En definitiva, la aportación mutua de valor: persona y empresa.

Las motivaciones de las empresas para incorporar o desarrollar en sus empresas estrategias de promoción de la participación de las personas son diversas, y de diferente intensidad en función de la tipología y la amplitud sobre la que se trabajan: la convicción o filosofía participativa de partida, los modelos de participación, la necesidad de facilitar la retención del talento, contribuir a generar una mayor implicación, sentido de pertenencia, e involucración de las personas, facilitar el relevo generacional de la propiedad o garantizar la continuidad de la actividad empresarial.

La participación de las personas tiene impactos positivos en el desarrollo de las oportunidades de aprendizaje en el trabajo; en la propia motivación de las personas; en la mejora de las condiciones de trabajo y de empleo; y en el bienestar de las personas. Impactos que pueden verse mejorados por otros factores. Algunos internos, o propios a la empresa y otros más externos o de contexto; en concreto: las características de la tarea de trabajo, la naturaleza de las políticas de flexibilidad de la capacidad organizativa de las personas; la disponibilidad de instituciones consultivas y representativas, el tipo de propiedad, la naturaleza de la regulación del empleo, la negociación colectiva, la interacción entre los interlocutores sociales y la cultura de negociación, el apoyo de los gobiernos locales, y la fiscalidad. En este sentido, deben alinearse las políticas de contextos y las actuaciones en el ámbito empresarial.

La participación de las personas en las empresas, genera beneficios tanto a nivel de las personas trabajadoras, como a nivel de empresa y territorio. Es un factor importante que afecta al bienestar de las y los trabajadores, así como la mejora de sus oportunidades de autodesarrollo, y satisfacción laboral. Es un factor en la eficiencia y el éxito de las empresas donde trabajan, es un ingrediente básico de la innovación en el lugar de trabajo, lo que permite a las empresas aprovechar al máximo las capacidades de las personas y su conocimiento de los procesos de producción y servicios de la empresa. Y, es un factor de cohesión, riqueza, democracia y vinculación en relación al territorio.

En este contexto, cada empresa debe definir y desarrollar su propio itinerario a favor de la participación; que fortalecen la capacidad de decisión de las personas, la competitividad de las empresas, el enraizamiento y, la cohesión social y territorial.

Finalmente, se asume que ninguna empresa es un ente autosuficiente y que el logro de todas las empresas está influenciado por el ecosistema de apoyo que las rodean; se entiende que la empresa es un hecho social, que no actúa aislada de la comunidad en la que está ubicada, y que necesita de su entorno y se beneficia de él. Y, de hecho, donde radica nuestra fuerza, es en lo local, lo cercano y en nuestra capacidad de relacionarlo.

Se trata de favorecer el protagonismo central de las personas en los proyectos empresariales para lograr una Gipuzkoa más participativa y comprometida.

La Diputación consciente de la importancia de tener modelos participativos en las empresas ha definido una estrategia



EK\CV GAO-I-2020-03353

finitu du datozen urteetarako, langileek Gipuzkoako enpresetan parte har dezaten bultzatzeko, helburutzat duena langileen ongizate maila hobetzea, Gipuzkoako enpresen lehiakortasuna eta lotura sendotzea, eta aberastasuna nahiz kohesioa sortzea lurraldearentzat, hura modu koordinatu batean sustatzeko lanean tartean sartuz departamentu bat baino gehiago: Etorkizuna Eraikiz ekimena, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua bera, eta Ogasun eta Finantza Departamentua.

Azkenik, urrats bat gehiago eman nahi da Gipuzkoako Foru Aldundiak politika eta programa publikoak ebaluatzeko duen konpromisoan, eta, beraz, dinamika guztiak indartuko dira, bai barnekoak (funtsean, ikuspegi integrala ahalbidetuko duten departamentuen artekoak), bai kanpokoak (inpaktuen eremuan sakonduz, bai pertsona eta entitate onuradunen inplikazioan sakonduz). Azken batean, politika publikoen efizientzia eta efikazia hobetzea, ongizatea eta gizarte-kohesioa lortzen laguntzeko.

Dirulaguntza hauek 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta daude.

Ondorioz, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuak hala proposatuta eta aurrez eztabaidatuta, Diputatuen Kontseiluak

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onartzea oinarri arautzaile orokorrak, erabaki honekin batera I. eranskin gisa doazenak, eta oinarri arautzaile espezifikoak, II. eta III. eranskin gisa doazenak, «Gipuzkoan, enpresetan pertsonen partaidetza sustatzeko programa»ko dirulaguntzak emateko.

*Bigarren.* Onartzea aipatutako dirulaguntzen 2020. urteko deialdia, erabaki honen IV. eranskin modura doana.

*Hirugarren.* 2020ko ekitaldiko deialdiari aurre egiteko, milioi bat eta hogeitabost mila euroko (1.025.000,00 €) gastua baimentzea, aurrekontu sail hauen kargura:

a) Seiehun eta hogeita zortzi mila bostehun eta hamabi euro (628.512,00 €), pertsonen partaidetzako enpresa ereduak bultzatzeko (II. eranskina):

| | |
|---|---|
| 1.0210.100.470.00.11.2020 | 365.008,00 € |
| 5.0210.100.470.00.11.2021 | 263.504,00 € |

b) Hirurehun eta laurogeita hamasei mila laurehun eta laurogeita zortzi euro (396.488,00 €), pertsonetan oinarritutako enpresa ereduen garapena aldezten duen ekosistema bat bultzatzeko proiektuak finantzatzeko (III. eranskina):

| | |
|---|---|
| 1.0210.100.445.00.03.2020 | 10.500,00 € |
| 1.0210.100.461.01.08.2020 | 6.300,00 € |
| 1.0210.100.461.06.08.2020 | 6.300,00 € |
| 1.0210.100.461.09.06.2020 | 6.300,00 € |
| 1.0210.100.470.00.17.2020 | 31.500,00 € |
| 1.0210.100.481.00.07.2020 | 75.426,00 € |
| 1.0210.100.745.00.01.2020 | 30.635,00 € |
| 1.0210.100.770.00.03.2020 | 30.635,00 € |
| 1.0210.100.781.00.03.2020 | 22.396,00 € |
| 5.0210.100.445.00.03.2021 | 7.003,00 € |
| 5.0210.100.461.01.08.2021 | 4.203,00 € |
| 5.0210.100.461.06.08.2021 | 4.203,00 € |
| 5.0210.100.461.09.06.2021 | 4.203,00 € |
| 5.0210.100.470.00.17.2021 | 21.013,00 € |
| 5.0210.100.481.00.07.2021 | 50.316,00 € |
| 5.0210.100.745.00.01.2021 | 20.370,00 € |

para el impulso de la participación de las personas trabajadoras en las empresas de Gipuzkoa durante los próximos años, orientada a mejorar el nivel de bienestar de las personas trabajadoras, fortalecer la competitividad y vinculación de las empresas de Gipuzkoa y generar riqueza y cohesión para el territorio, involucrando a diferentes departamentos en la promoción de la misma de manera coordinada: la iniciativa Etorkizuna Eraikiz, el propio Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural y el Departamento de Hacienda y Finanzas.

Por último, se quiere dar un paso más en el compromiso de la Diputación Foral de Gipuzkoa por la evaluación de las políticas y programas públicos por lo que se van a reforzar todas aquellas dinámicas, tanto de carácter interno (fundamentalmente de carácter interdepartamental que posibilite una visión integral) así como externo (profundizando en el ámbito de los impactos como de la implicación de las personas y entidades beneficiarias). En definitiva, mejorar la eficiencia y la eficacia de las políticas públicas para contribuir al bienestar y cohesión sociales.

Estas subvenciones se encuentran incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES).

En consecuencia, a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural y previa deliberación, el Consejo del Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras generales que se adjuntan como anexo I y las bases reguladoras específicas que se adjuntan como anexos II y III al presente acuerdo para la concesión de las subvenciones del programa para la «Promoción de la participación de las personas en las empresas en Gipuzkoa».

*Segundo.* Aprobar la convocatoria 2020 de las citadas ayudas, que se adjunta al presente acuerdo como anexo IV.

*Tercero.* Autorizar un gasto por importe de un millón veinticinco mil euros (1.025.000,00 €) para hacer frente a la convocatoria de 2020, con cargo a las siguientes partidas:

a) Seiscientos ventiocho mil quinientos doce euros (628.512,00 €), para la financiación de proyectos para impulsar modelos de empresa basados en la participación de las personas (anexo II):

| | |
|---|---|
| 1.0210.100.470.00.11.2020 | 365.008,00 € |
| 5.0210.100.470.00.11.2021 | 263.504,00 € |

b) Trescientos noventa y seis mil cuatrocientos ochenta y ocho euros (396.488,00 €) para la financiación de proyectos para impulsar un ecosistema que favorezca el desarrollo de modelos de empresas basadas en las personas (anexo III):

| | |
|---|---|
| 1.0210.100.445.00.03.2020 | 10.500,00 € |
| 1.0210.100.461.01.08.2020 | 6.300,00 € |
| 1.0210.100.461.06.08.2020 | 6.300,00 € |
| 1.0210.100.461.09.06.2020 | 6.300,00 € |
| 1.0210.100.470.00.17.2020 | 31.500,00 € |
| 1.0210.100.481.00.07.2020 | 75.426,00 € |
| 1.0210.100.745.00.01.2020 | 30.635,00 € |
| 1.0210.100.770.00.03.2020 | 30.635,00 € |
| 1.0210.100.781.00.03.2020 | 22.396,00 € |
| 5.0210.100.445.00.03.2021 | 7.003,00 € |
| 5.0210.100.461.01.08.2021 | 4.203,00 € |
| 5.0210.100.461.06.08.2021 | 4.203,00 € |
| 5.0210.100.461.09.06.2021 | 4.203,00 € |
| 5.0210.100.470.00.17.2021 | 21.013,00 € |
| 5.0210.100.481.00.07.2021 | 50.316,00 € |
| 5.0210.100.745.00.01.2021 | 20.370,00 € |

EK\CV GAO-I-2020-03353

5.0210.100.770.00.03.2021 20.370,00 €

5.0210.100.781.00.03.2021 44.815,00 €

*Laugarren.* Baimendutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du, aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak, deialdi berri bat egin beharrik izan gabe. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzea.

Nolanahi ere, dirulaguntzek gastu arruntak nahiz inbertsiokoak finantzatu ditzaketenez, jasotzen diren eskaerak ikusita eta proiektuetan nagusia den gastu mota kontuan hartuta, beharrezko diren aurrekontu egokitzapenak izapidetuko dira, emango diren laguntzak diruz lagundutako gastuaren izaerara egokitzearren.

Horrekin lotuta, eskumena ematen zaio berariaz Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuari hasieran baimendutako gastua gutxitu edo handitu dezan lehen aipatutako aurrekontu egokitzapenen arabera, zenbatekoa edozein izanik ere.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Interesdun pertsonek erabakiaren kontrako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko diote, zuzenean, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari, bi hilabeteko epean, argitalpenaren biharamunetik hasita.

Hala ere, partikularrek, aldez aurretik, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko diote Diputatuen Kontseiluari, hilabeteko epean, argitalpenaren biharamunetik hasita. Kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu berraztertzeko errekurtsoari espresuki erantzun arte edo ustezko ezestea gertatu arte. Horrez guztiaz gain, egokitzat jotako beste errekurtso oro aurkeztu ahalko da.

Donostia, 2020ko uztailaren 8a.—Segundo Díez Molinero, Departamentuko idazkari teknikoa. (3353)

I. ERANSKINA

*«Gipuzkoan, enpresetan pertsonen partaidetza sustatzeko programa»ko oinarri arautzaile orokorrak.*

*1. oinarria. Xedea.*

Oinarri hauen xedea da «Gipuzkoan, enpresetan pertsonen partaidetza sustatzeko programa»ko dirulaguntzen banaketa arautzea. Programa horren helburua da sustatzea kalitatezko enplegua, enpresen errotzea, lehiakortasuna, bere jarraitutasuna eta jasangarritasuna eta enpresetan pertsonen partaidetza aktibo, eraginkor eta erantzunkide baten bitartez. Laguntzak jarduera-alor hauetan emango dira, eta horien oinarri espezifikoak II. eta III. eranskinetan ezartzen dira:

a) II. eranskina: Pertsonen partaidetzako enpresa ereduak bultzatzea.

b) III. eranskina: Pertsonetan oinarritutako enpresa ereduen garapena aldezten duen ekosistema bat bultzatzea.

*2. oinarria. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

2.1. Eskaerek proiektu bat edo bat baino gehiago bil ditzakete, baina horietako bakoitzak II. eta III. eranskinetako 3. oinarrian zehaztu diren diruz laguntzeko jarduketa alorretakoa izan behar du.

Zuzenbidean baliozkoa den edozein bideren bitartez entitate eskatzailearen ordezkaria dela egiaztatzen duen pertsonak sinatu behar du dirulaguntza eskaera.

5.0210.100.770.00.03.2021 20.370,00 €

5.0210.100.781.00.03.2021 44.815,00 €

*Cuarto.* El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

Dado que se pueden financiar gastos corrientes o de inversión, a la vista de las solicitudes recibidas y en función del tipo de gasto predominante en los proyectos, se tramitarán las adaptaciones presupuestarias que resulten procedentes, a fin de adecuar las ayudas a conceder a la naturaleza del gasto subvencionado.

En relación con ello, se faculta expresamente al diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural para, independientemente de su importe, reducir y/o aumentar el gasto inicialmente autorizado en virtud de las adaptaciones presupuestarias mencionadas anteriormente.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 8 de julio de 2020.— El secretario técnico del Departamento, Segundo Díez Molinero. (3353)

ANEXO I

*Bases reguladoras generales del programa para la «Promoción de la participación de las personas en las empresas en Gipuzkoa».*

*Base 1.ª Objeto.*

Las presentes bases tienen por objeto regular la concesión de subvenciones del programa para la «Promoción de la participación de las personas en las empresas en Gipuzkoa», cuya finalidad es promover el empleo de calidad, el enraizamiento, la competitividad de las empresas, su continuidad y su sostenibilidad a través de una participación activa y efectiva y corresponsable de todas las personas de la empresa, en los siguientes ámbitos de actuación cuyas bases específicas se establecen en los anexos II y III:

a) Anexo II: Impulsar modelos de empresa basados en la participación de las personas.

b) Anexo III: Impulsar un ecosistema que favorezca el desarrollo de modelos de empresas basadas en las personas.

*Base 2.ª Forma y plazo de presentación de solicitudes.*

2.1. Las solicitudes estarán compuestas por uno o varios proyectos, debiendo cada uno de ellos corresponder a alguno de los ámbitos de actuación subvencionables descritos en la base 3.ª de los anexos II y III.

La solicitud se suscribirá por la persona que acredite la representación de la entidad interesada por cualquier medio válido en derecho.

EK\CV GAO-I-2020-03353

2.2. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaeraren inprimakiak eskuragarri egongo dira Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren web orrian, www.gipuzkoa.eus/web/ekonomia nahi duenarentzat.

2.3. Eskaera orria eta dokumentazioa, nagusiki, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren web orri honen bitartez aurkeztuko dira: http://sustapena.gipuzkoa.eus/Kudeaketa.

2.4. Dena dela, eskaera orriak eta deialdian zehazten diren gainerako agiriak Gipuzkoako Foru Aldundiko erregistro elektronikoaren bidez ere aurkeztu ahal izango dira (https://egoitza.gipuzkoa.eus).

2.5. Deialdian finkatuko da eskaerak aurkezteko epea.

2.6. Eskaera egin duten erakundeak ez daude beharturik Gipuzkoako Foru Aldundiari aurrez eman diren dokumentuak aurkeztera. Ondorio horietarako, interesdunak eskaera orrian zehaztu beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluak zehazten duenari jarraituz. Dokumentazioa lortzea ezinezkoa den kasuetan, eskumena duen organoak eskatu ahal izango dio eskaera egin duen erakundeari, edo aurkez dezala, edo, ezin badu, beste nolabait egiazta ditzala dokumentuan egiaztatu beharreko eskakizunak.

2.7. Eskaera orriak, edo harekin batera aurkeztutako agiriek, identifikazio daturik jasoko ez balute, akatsen bat izango balute edo daturen bat faltako balute, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, hamar eguneko epea emango litzaioke eskatzaileari hutsegite horiek konpontzeko, eta ohartaraziko litzaioke, horrela egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, aipatutako legeak 21.1 artikuluan aurreikusitako eran.

Nolanahi ere, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak proiektuak ebaluatzeko eta erabakitzeko beharrezkotzat jotzen dituen argibideak eskatuko ditu.

Proiektuaren memorian ezingo da zuzenketarik egin. Nolanahi ere, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak memoriaren inguruko informazio argigarria eskatu ahal izango du behar bezala ebaluatu dezan.

2.8. Entitate eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak posta elektronikoaren bidez dirulaguntzaren eskaeran harremanetarako pertsona gisa identifikatutakoaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiak.

*3. oinarria. Dirulaguntza emateko prozedura.*

3.1. Laguntza emateko prozedura, lehiaketa bidezkoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

3.2. Dirulaguntzak emateko prozedurari ofizioz ekingo zaio, eskudun den organoak onartu eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko den deialdiaren bidez.

*4. oinarria. Finantzaketa.*

4.1. Emango diren dirulaguntzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdian ezarriko da dirulaguntzak finantzatzeko zein aurrekontu kreditu erabiliko diren.

4.2. Dirulaguntzen zenbatekoek inolaz ere ezingo dute diruz lagundutako jardueraren kostu osoa gainditu, ez hemen araututakoa baizik jasotzen ez dutenean, ez hemen araututakoarekin batera bestelako dirulaguntza, laguntza, sarrera edota baliabideak jasotzen dituztenean.

2.2. La información de cada convocatoria y los impresos de solicitud estarán disponibles en la página web del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ekonomia.

2.3. La instancia de solicitud y la documentación que se adjunte se presentará preferentemente a través de la siguiente página web del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural: http://sustapena.gipuzkoa.eus/Kudeaketa.

2.4. No obstante, las solicitudes, junto con el resto de documentación que se establezca en la convocatoria, también podrán presentarse a través del registro electrónico de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus).

2.5. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria.

2.6. Las entidades solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que hayan sido aportados anteriormente a la Diputación Foral de Gipuzkoa. A estos efectos, el interesado deberá indicar en el impreso de solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos dichos documentos, de conformidad con lo previsto en el artículo 28.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. En los supuestos de imposibilidad material de obtener la documentación, el órgano competente podrá requerir a la entidad solicitante su presentación o, en su defecto, la acreditación por otros medios de los requisitos a que se refiere el documento.

2.7. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 21.1 de la citada ley.

En cualquier caso, el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural podrá solicitar las aclaraciones necesarias para la correcta evaluación y resolución de los proyectos.

La memoria del proyecto no es objeto de subsanación. No obstante, el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural podrá requerir cuanta documentación e información aclaratoria considere necesarias para su adecuada evaluación.

2.8. La entidad solicitante dará validez a todas las comunicaciones emitidas por el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural vía e-mail a la cuenta de correo electrónico de la persona de contacto identificada en la solicitud de ayuda.

*Base 3.ª Procedimiento de concesión.*

3.1. El procedimiento de concesión será el de concurrencia competitiva, mediante convocatoria y procedimiento selectivo único.

3.2. El procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará de oficio, mediante convocatoria aprobada por el órgano competente y publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Base 4.ª Financiación.*

4.1. Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

4.2. El importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste total de la actividad subvencionada.

EK\CV GAO-I-2020-03353

*5. oinarria. Dirulaguntzen gehieneko ehuneko eta zenbatekoak.*

5.1. Dirulaguntzek ehuneko hauek izango dituzte: kostu hautagarrien % 75 II. eranskineko jarduera hautagarrietan; eta kostu hautagarrien % 100, berriz III. eranskineko jarduera hautagarrietan.

5.2. Eskatzaileak aurkeztutako aurrekontua edota gerora aldatutakoa erreferentziatzat hartuko da dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa kalkulatzerakoan.

*6. oinarria. Prozedura ordenatu eta bideratzeko organo eskuduna.*

6.1. Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuak bideratuko du prozedura.

6.2. Aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatzeko, ebaluazio batzorde bat eratuko da, eta horretako kide izango dira honakoak:

— Ekonomia Sustapeneko zuzendari nagusia.

— Ekonomia Sustapeneko zerbitzuburua.

— Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuko teknikari bat.

— Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko idazkari teknikoa.

6.3. Batzorde horrek, nolanahi ere, bidezko aholkularitza eta txosten teknikoak eska ditzake, aurkeztu diren eskaerak modu egokian balioetsi ahal izateko.

*7. oinarria. Dirulaguntza emateko ebazpena.*

7.1. Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren egitura organiko eta funtzionala arautzen duen eta indarrean dagoen foru dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuari dagokio dirulaguntza emateko edo, kasua balitz, ukatzeko ebazpena ematea.

7.2. Dirulaguntza emateko, edo kasua balitz, ukatzeko ebazpena erakunde eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio. Edozein modutara, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN ere argitaratuko ditu emandako dirulaguntzak, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 17. artikuluan ezarritakoaren arabera.

7.3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea 6 hilekoa da, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatuta, salbu deialdian bertan bere eragina beranduago hasiko dela aurreikusten denean. Gehieneko epe hori berariazko ebazpena jakinarazi gabe igaroko balitz, interesdunak legitimatuta egongo dira beraiek egindako eskaera ezetsitzat jotzeko isiltasun administratiboaz.

7.4. Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskaeran agertzen dena baino txikiagoa denean, organo eskudunak erakunde onuradunari eska diezaioke eskaera birformulatzeko, konpromisoak eta baldintzak eman dakiokeen dirulaguntzara egokitu ahal izateko.

*8. oinarria. Erakunde onuradunen betekizun eta konpromisoak.*

8.1. Erakunde onuradunek dirulaguntzak onartzeak berekin dakar martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutako Erregelamenduak eta dirulaguntzen alorreko gainerako araudi aplikagarriak ezarritako betebeharrak betetzea, baita oinarri orokor hauetan nahiz berezietan ezartzen direnak ere.

8.2. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da diruz lagundutako proiektuaren ondorioz egiten diren jakinarazpenetan, argitalpenetan eta zabalkunde jardueretan, hala agintzen baitu 2018ko ekainaren 26ko Dipu-

*Base 5.ª Porcentajes y cuantías máximas de las subvenciones.*

5.1. Las ayudas serán del 75 % de los costes elegibles en proyectos del anexo II y del 100 % de los costes elegibles en los proyectos del anexo III.

5.2. El presupuesto presentado por la entidad solicitante o sus modificaciones posteriores servirán de referencia para la determinación final del importe de la subvención.

*Base 6.ª Órgano competente para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

6.1. El órgano instructor del procedimiento será el Servicio de Promoción Económica.

6.2. Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una comisión evaluadora en la cual participarán las siguientes personas:

— El director general de Promoción Económica.

— El jefe del Servicio de Promoción Económica.

— Una técnica del Servicio de Promoción Económica.

— El secretario técnico del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

6.3. Dicha comisión podrá solicitar el asesoramiento y la emisión de los informes técnicos pertinentes para una adecuada valoración de las solicitudes presentadas.

*Base 7.ª Resolución de la concesión.*

7.1. La resolución sobre la concesión o, en su caso, denegación de las ayudas corresponderá al diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de conformidad con lo señalado en el decreto foral vigente de estructura orgánica y funcional del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

7.2. La resolución de concesión o, en su caso denegación, se notificará individualmente a cada entidad solicitante. No obstante, el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa las subvenciones concedidas, según lo establecido en el artículo 17 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

